

noaua

**Ingemarreko langileak
greba mugagabea**

**Presoen inguruko
ekimen astea**

**Felix Sarasolaren
omenaldia ate joka**

“Autobusa erori da erriora!”

**1967ko abenduaren 13an, Lasao baserriaren
parean gertatu zen istripua ekarri dugu gogora**

Usurbil Autoak
 Zumartegi Industrialdea, Aitzearra kalea, 24
 20170 Usurbil (Gipuzkoa)
 usurbilautoak@gmail.com
 Tel: 943 36 10 79

SALMENTA - MEKANIKA - KARROZERIA

PANDA 4X4 	TALENTO 
QUBO 2 	500X 
SPORTAGE 	SORENTO 
STONIC 	STONIC 

677 109 902
 usurbilautoak@gmail.com

GOLDWELL ELUMEN

ile apaindegi

mistoa

Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

Jantzi kolorez zure etxe, balkoi zein lorategia!

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Ontzien alokairua urte osoan zehar

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiakera.

Begiraleekin antolatutako jarduerak

657 794 677

www.begi-bistan.com
 info@begi-bistan.com

Albiste iruditan

Atzerriko ikastetxeekin hartuemanak estutzen

Usurbilgo Lanbide Eskolako ordezkari bat Wiesbadenera (Alemania) joan da berriki, bertako Friedrich Ebert Schule-rekin lankidetzeta hitzarmena sinatzera.

“Gure ikastetxeko estrategiaren eremu garrantzitsua da nazioarteko proiektuei indarra ematea eta bide horretan, urrats sendoa izango da ikastetxe honekin lankidetzeta”, berri eman dute Lanbide Eskolatik, ondoko argazkia helaraztearekin batera.

Alemaniara bertaratu zen ordezkariak, bisita gehiago egiteko ere baliatu zuen bidaia. “Bide batez, inguruko John Muller enpresa bisitatu dute eta Frankfurteko Messe Azoka, izugarri interesgarria”, gaineratu dute Lanbide Eskolatik.

Bi ikastetxeetako zuzendariak (Isidro Zalduak eta Manfred Kirschnerrek) sinaturiko hitzarmenak aurrez bi eskolek



Usurbilgo Lanbide Eskolako eta Wiesbadeneko ikastetxeko ordezkariak.

zuten hartuemanak sendotuko du. “Ikastetxe honekin harremanak izan ditugu, gure ikasleak joan izan dira bertara eta hangok gurera etorri lantokiko prakti-

kak egitera. Bi ikastetxeetako irakasleak ere egin ditugu bisitak elkarren metodologia eta instalazioak ezagutzeko”, adierazi dute Lanbide Eskolatik.

Laburrean

1959an jaiotako enbarkaria

Urriaren 20rako finkatu dute 1959an jaiotako herritarrek elkartu eta enbarkaritako eguna. Aurrerago emango dituzte xehetasun gehiago. Halere, argibide gehiago behar duenak deitu dezala 659 13 90 73 telefono zenbakira (Elixabet).

Uda garaira egokituko gaituen ordu aldaketa

Badator erlojuko orratzak aldatzeko garaia. Uda garaiko ordutegira egokituko ordu aldaketa izango dugu martxoaren 31n. Goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira. Ordubete gutxiago beraz lo egin edota parrandarako.

Errigoraren produktuak eskatzeko azken egunak

Bost urte bete dituen Errigoraren “Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura” kanpainako produktuak eskatzeko martxoaren 22ra arteko epea duzue NOAUA!n. Goioan izan, kontserbak, olioia, arroza eta kamisetak dituzue aukeran.

noaUA

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaUA.eus ||| www.noaUA.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordintzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaUA.eus:

Imanol Ubeda, Itxaso

Orbegozo eta Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Itxaso Orbeagoza

Behin Martxoak 8 pasata...

Azer nolako eguna Martxoaren 8koa! Herriko emakumeok, gazte zein adineko, kaleak hartu genituen. Goizean herrikoak, arratsaldean Donostiakoak. Gure indarra ikusteko aldizkari honetako argazkiak ikusi besterik ez dago, edo probintziakoren bat ere bai. Horrelako egunetan berdintasuna inoiz baino gertuago ikusten dut, emakumeok batuta helburu baten alde borrokan. Egunerokotasunean, ordea...

Giro politari buruz hasi naiz eta, gogoan dut oraindik joan den urteko Sagardo Eguna. Giro ederra orduan ere: trago bat, beste bat, jiji, jaja... gogoan dudana gertaera, ordea, ez da inola ere momentu googarriena, baina, tamalez, emakume guztioi gertatu zaigu halakoren bat noizbait. Goi-zaldekoko ordu txikitik gertatu zen, horrelakoak sarri (baina

ez beti) gertatzen diren garaian. Ni ordurako etxean nintzen; azterketa garaia izaten da eta ikasi egin behar... Lagun gehienak, ordea, berandura arte geratu ziren kalean, eta noski, tabernetan. Halako batean mutil batek (eta ez kanpoko mutil batek, ez ezezagun batek), herriko mutil batek lagun bati ukituak egin zizkion. Egoera ikusita, beste lagun bat (demagun Marta izena duela) zerbitzariarengana (gizona) hurbildu zen eta gertatzen ari zena kontatu zion: eta nik zer egitea nahi duzu? Guztiok dakigu mutil hori nolakoa den... erantzun zion zerbitzariak (bigarren honi Ludobiko deituko diogu).

Handik gutxira, goizeko 4:00ak aldera edo, taberna berean, Martari ipurdia ukitu zion beste gizon batek (bigarren hau ezezaguna, ez herrikoa) eta, berriz ere, haserre zerbitzari berarengana joan zen: zein da,

horko hori? eta nire lagunak baietz. AUPA HII!, horixe izan zen Ludobikoren erantzuna nazkagarri hari bizkarrean kolpetxoak ematen zizkion bitartean, erabat konplize. Orduan sortu zen benetako iskanbila bien artean, Marta ez baita horrelakoen aurrean isilik geratzen den horietakoa. Kontuak eskatu zizkion izandako jarreragatik: taberna hau ordubietatik aurrera itxita dago... besteak harro, bere buruari erantzukizuna kendu nahian.

Hala ere, tabernan bazen buru gehixeago duen zerbitzari bat (Manu deituko diogu), eta gertatua azaltzeko eskatu zion Martari. Honek Ludobikorekin izandako eztabaidak kontatu zizkion, eta Manuk lasai egoteko, horrelako egoerarako protokolorik ez zutela, baina hurrengo egunean bilera deituko zuela zerbait pentsatzeko. Marta ere gonbidatu zuen protokolo

berriaren gainean egingo zuten bilerara, baina Martak ezetz, ez zetorkiola ongi egun hori. Halere, eskerrak ere eman zizkion kezkatzeagatik eta egoera aldatzeko zerbait proposatzeagatik, nahiz eta ez zuen zertan halakorik egin.

Behin dena kontatzen hasita, esan beharra daukat Ludobiko berdintasunaren aldeko manifestazioetan maiz ikusi dudala, bai eta herri mugimenduen beste alor batzuetan ere. Oso ondo iruditzen zait herriko jardueretan parte hartzea eta nola ez gizartea aldatzeko borroka ugartan inplikatzeko, baina hausnarketak egin ondoren egin behar dira horrelakoak. Zein erraza den matxismoa gure ekintzetatik kanpo ikusi eta salatzea, baina autokritika gutxi egiten diogu gure buruari.

Gizona(k): postureo gutxio eta erreflexio gehio!

Garazi Lizaso Manterola | **Itxaso Orbeagoza** | Aroa Etxeburua Ugartemendia | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Imanol Ubeda

Ika-mika

Agintari eta botere ekonomikoaren itxurakeriari planto

Martxoaren 8aren egunaren karietara zerbait hausnarketa egiteari bidezkoa eta beharrezkoa deritzogu, pentsioak grebaren ardatzetako bat izan den une beretik, eta, batez ere, emakume pentsiodunen aldarrikapenak lehen lerroan izan direlako.

Duela gutxi, PPko Pablo Casadok zioenez, pentsio sistemak etorkizuna izateko emakumeok ume gehiago erditu behar ditugu, eta gezur borobila dela esan behar da. Emakumeok etxerako bidean jartzeko asmoa iragartzen da horretan, emakumeok berriz ere eremu pribatura kateatuko gaituzten politikak bultzatuz, hain zuzen ere. Gakoa abe-

rasutasunaren banaketan dago, pentsio sistema publikoaren aldeko apustu sendoan, lanari dagokion balioa emango dion lan mundua ziurtatzean eta bermatzean, eta 80ko hamarkadaren erditik hona espainiar estatuko gobernuek indarrean jarritako lan eta pentsio erformak indargabetzean.

Horrekin batera, lan errendimenduak aitortu beharko lirake eta, halaber, soldata arrakalaren atzean dauden kausei aurre egingo dieten politikak bultzatu, gizonen eta emakumeen arteko pentsioen berdintasuna lortze aldera. PPko agintariak ez ditu buruan etorkizuneko pentsiodunak, mugimendu feminista gizar-

tearen begietara aldatzeko lor ditzakeen mugimenduak bilakatzen ari dela baizik.

Bestalde, Eusko Legebiltzarrean ikusi dugu Iñigo Urkullu lehendakaria buru dutela, Jaurilaritzako kontseilariak txapa morea paparrean pozarren. Zer egin zuen ba Eusko Jaurilaritzak aurrekontuetan pobreziaaren atalasetik behera dauden pentsioak osatzeko eskaeraren aurrean? Ez al dira ba emakume alargunak egoera horretan daudenak? Non zen haien gaurko emakumeekiko sentiberatasuna? Zergatik ari dira zerbitzu publikoak etengabe pribatizatzen eta gizarte zerbitzuak etengabe murrizten?

Emakume gazteen emantzipazioa eta pentsiodunentzako zahartzaro duina ezinezkoa egiten duten horiek feminismoaren alde agertu dira. Gure agintariak botere ekonomikoaren esanetara daude, eta haien asmoak eta politikak bultzatzen dituzte geroz eta kapital gehiago, geroz eta esku gutxiagotan metatzeko helburuari jarraiki.

Pentsiodunon borroka luze joko du eta pazientzia, alaitasuna, kemen, jarraitasuna eta gure aliatuak diren emakume mugimendurekin, gazteekin eta langileekin saretu aurrera egitea lortuko dugu.

Pentsiodunak aurrera

EHBilduren zerrendaren aurkezpena ostiralean

Maiatzaren 26ko hauteskundeetarako prestaketa betean dira alderdiak. Usurbilgo EHBilduk hitzordu honetarako hautes-zerrenda aurkeztu eta berresteko herri batzarra deitu du ostiralerako (martxoak 22) arratsaldeko 18:30etan Potxoenean. “Bide batez, kanpainako gure proiektu izarren berri ere emango dugu”, iragarri dute koalizioetik.

Mertxe Aizpurua, Madrilgo Diputatuen Kongresura

Usurbilgo alkate ohi Mertxe Aizpurua Arzallus izango da Espainiako Diputatuen Kongresurako EHBilduren Gipuzkoako zerrendaburua, ate joka ditugun apirilaren 28ko hauteskundeetan. 2011-15 le-



Usurbilgo EHBilduk otsailaren 9an aurkeztu zuen udal hauteskundeetarako alkategaia; Agurtzane Solaberrieta Mesa.

gealdian Usurbilgo alkatea izan zen, Udalbiltzako lehendakaria baita. Legealdi hura amaituta, ogibide duen kazetaritzara bueltatu zen, Gara egunkari-

ko erredakziora. 1999-2004 urte artean aipatu egunkariko zuzendaria izandakoak politika mundura jauzi egingo du berriz.

Otsailean 247

langabetu

2013ko ia 400 langabetuko erregistroetatik urrutiratu gara. 247 langabetu zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak otsailean Usurbilen, urtarrilean baino lau gehiago. Ohi bezala, emakume langabetu gehiago, nahiz gizonetzko gehiago kontratatzen den. 2019ko otsaileko datuetara itzulita, 247 langabetu ditu Usurbilek. Haietatik 130, 45 urtetik gorako kolektiboan. Usurbilek gizonetzkoak baino emakume langabetu gehiago izaten segitzen du. 137 langabetu eta 110 gizonetzko langabetu joan den hilabeteetan. Aldiz, otsailean erregistraturiko 326 lan kontratuetatik 185 lan kontratu gizonetzkoenak, 141 emakumezkoenak ziren. Ia denak, 307, aldi baterako hitzartuak. 243 zerbitzuen sektorean.

Ika-mika

Bozka guztiek ez dute berdin balio

Pertsona guztiek bozkatzeko eskubidea dute; baina, bozka guztiek ez dute berdin balio. Alderdi politiko nagusietan ordezkatuak sentitzen ez diren herritarrek behartuta daude bozka zuria bozkatzea edo baliogabea aukeratzea edo bozkatu gabe geratzera; beraz, euren aukera inoiz ez da parlamentuan islatua izaten. Ondorioz, betiko alderdi nagusiek, Hauteskunde Legeaz baliaturik, eserleku edo eskainu guztiak banatzen dituzte euren artean, herritarra kontuan izan gabe, haren desadostasuna aintzakotzat hartu gabe, bozka zuriak aintzakotzat hartu gabe.

Hainbat alderdi politiko txiki sinadurak biltzen dabiltza azken egunotan Gipuzkoan zehar. Hauteskunde legearen

azken aldaketaren ondorioz, Gipuzkoako erroldaren % 0,1 abal bildu behar dituzte hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko. Ziztu bizian gainera, 20 eguneko epea baitute. Alderdi horiek, txikiak baino, alderdi minorizatuak direla baieztatu daiteke. Madrilgo Kongresuan edo Senatuan ordezkariak duten alderdiek ez dute “tramite” hau pasa behar. Edozein alderdi politiko demokratikok hauteskunde batzuetara aurkezteko aukera izan beharko luke, traba gehiegirik gabe.

Sinadurak biltzen ari direnek ez dute euren asmoekin bat egiteko eskatzen; soil-soilik, hauteskundeetara aurkezteko aukera izateko laguntza eskatzen dute, sinatzaileak beste inolako konpromisorik hartzen ez duelarik. Alderdi minorizatu-

horien artean Aulki Zuriak-“Escalaños en Blanco” dago. Alderdi horrek Hauteskunde Legearen aldaketa bat bilatzen du, non, bozka zuriak benetako eragina izango duen parlamentuetan, gaur egun eskainuen banaketan ez baita kontuan hartzen, bozka zuriak baztertzen baitituzte. Asmo hori lortzeko, alderdi bezala osatu dira. Euren hauteskunde programa lerro batean laburtzen da: “Lortuko diren eskainuak hutsik uztea, edozein soldata zein diru-laguntzari uko eginez”.

Lortzen dituzten eskainuak libre mantentzen dituzte, hutsik geratzen dira; eta ondorioz, soldatei eta diru-laguntzei uko egiten diete, politikarien eserlekuak zergekin ordaintzen baitira. Herritarrek eserleku bat hutsik uzteko eskubidea dutela

defendatzen dute; beraz, eserleku hori ez zaio euro bakar bat bera ere kostatu behar gizar-teari. Aulki Zuriak-“Escalaños en Blanco” alderdiak iraungitze data finkatua du, bere burua desegingo baitu bozka zuriak kontuan hartuko dituen Hauteskunde Lege bat lortzen denean; eta parlamentuetan, edota udaletxeetan, eserlekuak hutsik ikusten direnean, alderdirik gabeko herritarren bozka parlamentuetan isla duenean.

Bitartean, Aulki Zuriak-“Escalaños en Blanco” dugu aukera zentzuzkoena eta praktikoa. Haien bozka orriak hautesleketan ikusi nahi badituzue, eman zuen abala. Herriz herri gabiltza sinadurak biltzen.

Luis mari Ormaetxea
Senatarigaia (Aulki Zuriak-EB)

Euskaraldiaren ondorena auzitan, Kike Amonarrizekin

Herritar andana bildu zen Potxoenean martxoaren 12an Kike Amonarriz soziolinguistarekin Euskaraldiaren ondorenen gainean hausnarketa egiteko solasaldian. Gai bera lantzeko beste bi herritan lanketa egina zuen Amonarrizek aldez aurretik; lehena Oiartzunen, eta bigarrena EAn. Bertako emaitzak mahai gainera aterata eztabai datu zuten herritarrek. Kezka nagusia honakoa izan zen: bi figuren rola (ahobizi eta belarriprest) benetan ulertu dira?

Post-it orrietan bakoitzak bere usteak idatzi zituen galderra honi erantzunez: Zer azpimarratuko zenuke Euskaraldiaren ondorenaz?



Euskaraldiaren ondorena aztertzeko martxoaren 12an Potxoenean eginiko solasaldi parte hartzailea.

Baliagarria

Batzuek alderdi eta aldaketa positiboak plazaratu zituzten, besteek, ordea, zer hobetu bada deritze. Gehienen ustez, baliagarria izan da Euskaraldia eta euskarari buruzko uste eta zalantzak modu naturalean hitz egiteko aukera eskaini du. Izan da eraginik sumatu ez duenik, baina aldatzeko pausoak ematea bakoitzaren ardura dela uste duenik ere bada. Amonarrizek beste herrietan eginiko hitzaldietan ere antzeko erantzunak jaso ditu, eta herri euskaldunetan erradiografia antzekoa dela ondorioztatu zuen. Euskaldunak ez diren herrietan emaitzak eta usteak bestelakoak lirateke.

EUSKARALDIA

“2020. urtean egingo da hurrengo esperimentu sozial handia, Euskaraldiaren jarraipena izango dena”

Aldaketarik egin duten galdetuta, gehiengoak baietz erantzun zuen, 13 pertsonak, hain justu. Seik, aldiz, eguneroko hautu linguistikoak egiten jarraitu dute, aldaketa berezirik gabe. Azken horiek argudiatu zuten aldaketarik ez dutela egin, lehenago ere inguruko guztiekin euskaraz egiten zutelako. Aldaketak egin dituzten artean, sorpresarik hartu duenik ere izan da, sorpresa on horietako bat.

Datuei erreparatuz, emakumeak izan dira partehartzaileenak, ia %63 Euskal Herrian eta %59 Usurbilen. Adin taldeak kontuan izanda, 30-44 urte bitartekoak azpimarratu behar, %36,9ko partehartzearekin Euskal Herrian, eta %36,1 Usurbilen. Gazteen artean ere partehartze handia lurralde osoan (%23,7), bai eta Usurbilen ere (%20,3).

2020. urtean egingo da hurrengo esperimentu sozial handia, Euskaraldiaren jarraipena izango dena. Entitateei partehartze handiagoea eskatuko zaie edizio horretan, eta hori ahalbideratzea “postureoan” erori gabe, horixe izango da antolatzaileen erronkarik handiena.

Euskaraldiko azken galdetegia

Euskaraldia eta Kike Amonarrizen solasaldia emankorra izan zen antolatzaileen esanetan. Bertan ateratako ideiei forma ematen hasteko bilera deitua zuten asteazken honetarako. Baina bada beste deialdi garrantzitsu bat ere. Euskaraldiaren eragina neurtzeko Soziolinguistika Klusterra egiten ari den ikerketara begira, Ahobizi eta Belarriprestok email bidez jaso duzuen hirugarren galdetegia martxoa amaitu baino lehen bete behar da. Galdetegia osatzeko arazorik duenak deitu dezala Potxoenean, 943 371 999 telefono zenbakira.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noeua.eus

Kima
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Presoen eskubideen inguruko ekimen astea

Euskal presoak etxera ekartzeko aldarriak hileroko mobilizazioaz gain hitzordu gehiago dakartza oraingoan. Euskal presoen eskubideen inguruko ekimen astea antolatu du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak martxoaren 28tik 31ra.

Espetxe zigorraren hiru laurdenak beteta, jada kalean behar zuten arren, oraindik orain gugandik 600 kilometrorra, Valentziako Picassent espetxean preso diren Olatz Lasagabaster, Patxi Uranga eta haien haur Xua Usurbila itzultzeko, etxera ekartzea galdegiteko elkarretaratzea izango da hilaren 29an, eta horren ostean, haiei euskal prentsa helarazteko harpidetza afaria Aitzaga elkarrean. Txartelak herriko tabernan bertan eskuratu ahaliko dituzue, alde zuretik.

Gogoan izan, urtebete barru, 2020ko urtarrilean Xuak hiru urte bete beharko ditu. Espetxetik irten eta gurasoengandik urrundu beharko du. Patxi eta Olatzek 2021erako dute irteera data.

Presoak eta sorkuntza

Jokin Urainek presoen senideen lekukotzekin osaturiko "Amaren etxea" liburua aurkeztuko dute ekimen aste honen baitan.

Sorkuntza eta presoak lortuko ditu Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak antolatutako



Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, martxoaren 29an izango da, hileroko moduan. Oraingoan ordea, mobilizazio honekin batera ekimen gehiago iragarri ditu Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak.

EKIMEN ASTEA

"Sortzea bizirik irauteko bitartekoa da kartzelan. Ziegaren helburua da preso bere ingurunetik bakartzea"

ziklo honek. Batetik, martxoaren 30ean sorkuntza eta presoak hizpide dituen solasaldia antolatu dute, besteak beste, Xabier Aranburu "Xomorro" Aginagako preso ohia-ekin. Eta lau egunetzat Sutegin, kontzientziak astindu eta gogoetatzeko Aitzol Iriondo eta Itziar Moreno Frantziako espetxeetan sakabanatuak dituzten euskal presoen sortze lanak ikusgai izango dituzue.

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak azpimarratzen dutenez, "ez diote inoiz utzi

munduari so egiteari, interpretatzeari, eraldatu nahi izateari. Horretarako, besteak beste, sorkuntzari heldu diote, diziplina ugariatatik".

Sorkuntza espetxe barruko biziraupenerako bitarteko bilakatzen dela nabarmentzen dute erakusketaren antolatzaileek. "Izan ere, sortzea bizirik irauteko bitartekoa da kartzelan. Ziegaren helburua da preso bere ingurunetik bakartzea, eta, sorkuntzaren bitartez, bakartze hori hautsi, eta espetxetik kanpokoarekin harremanetan jarri nahi izan dute. Eremu gris horri kolorea ematen saiatu. Erakusketa honetan, gainera, gaurkotasun handiko gaiei erreparatu diete; migrazioari, emakumearen sexualitateari, zapalkuntza sexistari edota transexualitateari".

Presoen eskubideen inguruko ekimenak

■ **Martxoak 28, osteguna**
19:00 "Amaren etxea" liburua aurkeztuz Sute- giko erakustaretoan. Jokin Urainek presoen familien lekukotasunekin egindako liburuaren aurkeztuz, Fermin Munarrizen eskutik.

■ **Martxoak 29, ostirala**
20:00 Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

21:00 Herriko presoek euskal prentsa helarazteko harpidetza afaria Aitzagan. Menua: entsalada, oilaskoa piperradarekin, sagar tarta, edariak eta kafea. Txartelak Aitzaga tabernan salgai 20 eurotan (langabeek 14 eurotan).

■ **Martxoak 30, larunbata**
19:00 "Presoak eta sorkuntza" solasaldia Sute- giko erakustaretoan.

Partaideak: Oier Gonzalez, Ateramiñeko ki- dea eta Xabier Aranburu 'Xomorro' preso ohia.

■ **Martxoaren 28tik 31ra, ostegunetik igandera**

Erakusketa: Aitzol Iriondo eta Itziar Moreno euskal presoen artelanak.

Orduetgia: martxoaren 28tik 30era, 18:30-20:00 artean. Martxoaren 31n (igandea), 12:00-13:30 artean.

Tokia: Sute- giko erakustare- toa.

Antolatzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza
• segurtasun beirak • dutxa-izurak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

%85eko gaikako bilketa, atez atekoaren 10. urtemugan

Ohitura aldaketa txiki batek hondakinen kudeaketa eredu irauli zuenetik 10 urte bete dira Usurbilen; 10 urte atez ateko bilketa abiatu zenetik.

Urtemuga honen bueltan Usurbilgo Udalak emandako datuen arabera, 2018an %85ekoa zen gaikako bilketa Usurbilen.

Atez ateko bilketa sistema, laster Zubieta erdiguneraino

Eta hazten segiko du, behinik behin eremuari dagokionean. Herri honetako Udala bera, Donostiako Udalarekin eta Zubietako Herri Batzarrarekin hilabete amaierarako prest egotea aurreikusten duten hitzarmen bat lantzen ari dira. Hitzarmen horrekin, aipatu bi udalerrion artean zatitua den Zubietako zerbitzuak modu eraginkorragoan kudeatzea sustatu nahi da. Tartean, hondakinena. Modu honetan, Udalberri udal aldizkariak plazaratu duenez, laster, Zubieta erdigunetik hasi eta Santueneraino, bai Usurbilgo zein Donostiako partera zabalduko dute, jada Usurbilgo zatian eta hala nahi zuten Donostiako lur eremuetako etxeetan, 2015eko uztailaren 1az gozotik martxan



10 urte bete ditu atez ateko bilketa sistemak Usurbilen. Egun, hondakinen %85 gaika biltzen du udalerrri honek.

ATEZ ATEKO BILKETA “Laster, Zubieta erdigunetik hasi eta Santueneraino, Usurbil zein Donostiako eremu osora zabalduko dute atez ateko bilketa sistema”

zegoen atez ateko bilketa sistema. Aldaketa hau begi bistakoa izango da laster. Donostiako Udalak Zubietako kaleetan dituen edukiontzia kendu egingo ditu “eta hondakinak uzteko bi larrialdi-gune ezarriko dira; bata, Lanbide Eskolaren alda-

menean, eta bestea Barazarren alboan. Hala, atez ate hondakinak biltzen ez zaizkienei gune hauetarako giltza emango zaie”.

“Usurbil 0.0”-ren jarraipen saioa Etorkizuneko hondakinen kudeaketa eredu integralerantz aurrerapausoak emateko Usurbilek duen bide-orria, Usurbil 0.0 egitasmoaren jarraipen saioa deitu du Udalak martxoaren 27rako 18:00etan Potxoenean. Ordubeteko saioan, azken hilabeteetako lanketa plazaratzea litzateke asmoa, eta aurrera begirako in guruan hausnartzea.

“Ligoteo sanoa”

Gogoeta, trebatze eta esperimentazio kolektiborako tailer misto hau antolatu du Usurbilgo Gazte Asanbladak, martxoaren 22an 22:00etan Potxoenean. Arremanitzek gidatuko du. “Tratu onean oinarritutako kultura erotikoa sustatuko dugu”.

Film eta telesail ez sexisten inguruko hitzaldia

Berdintasunean hezteko baliabideak azaldu eta dugun ikuspegia aldatzeko kontuan izan beharreko eremuez jardungo duen hitzaldia antolatu du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak martxoaren 26rako 17:00etan Potxoenean. “Haur eta gazteak berdintasunean hezteko baliabide ugari ditugu: ipuin, film eta telesail parekideak, hizkuntza era ez sexistan erabiltzeko gidak, emakume erreferenteak...”, ohartarazten du Parekidetasun Sailak. Baliabide guztiok azalduko dira, “baina horrekin batera, ikuspegia aldatzeko kontuan izan beharreko eremuez jardungo gara”.

“Zatoz Mahaspildegik elkartea ezagutzera”

Ate irekien asteburua antolatu du martxoaren 30ean 17:00-19:00 artean eta martxoaren 31n 11:00-13:00 artean, Atxegaldeko Mahaspildegik elkarrekin. Hitzorduotan “elkartea ezagutzera emango da eta bazkide izateko dauden aukera ezberdinak azalduko dira. Animatu eta azaldu!”. Argibide gehiagorako: mahaspildegik@gmail.com



Ate irekien asteburua, martxoaren 30ean eta 31n.

Errefuxiatuen aldeko laguntza bilketa

Lesboseko errefuxiatuei lagundu asmoz, Udarregi Ikastolako LH6ko ikasleek azoka solidarioa antolatu zuten frontoian joan den martxoaren 15ean, Zaporeak egitasmoko sustatzaileekin elkarlanean. Jaki goxoak, kamisetak, eskulanak, produktu ezberdinak zozketatu zituen tonbola... denetik izan zuten salgai ikasleok. Bildutako laguntza, bizi baldintza latzetan bizi diren Lesboseko errefuxiatuei helaraziko diete.



Zaporeak egitasmoko kideek ere parte hartu zuten, Udarregi Ikastolako LH6ko ikasleek antolatu zuten elkartasun azokan.

“Gradu Dualak lan munduarekin lehen kontaktua izateko aukera ematen du”



Urko Ubarretxena futbol zelaian. Astigarragako 19 urteko gaztea Ingeniaritza Mekanikako gradu bigarren maila egiten ari da Arrasaten, Mondragon Unibertsitatean.

Urko Ubarretxena (19 urte, Astigarraga) Ingeniaritza Mekanikako gradu bigarren maila egiten ari da Mondragon Unibertsitatean, Arrasaten (Gipuzkoa).

Zergatik aukeratu zenuen Mekanikako Gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean? Ingeniaritzen artean gustuko nuen graduren baten bila nebilela, konturatu nintzen modalitate bakoitzak erakartzen ninduen zerbait zuela.

Horregatik, Mekanika entzun nuenean, ez nuen dudarik izan, diziplina anitzeko gradua baita. Hasieran, hau egiteko aukera gutxi zeuden

Espanian, baina azken momentuan Mondragon Unibertsitateak gradua aurkeztu zuenean, hurbiltasuna eta metodologiagatik argi izan nuen nora joan.

Batxilergotik unibertsitate-ra aldaketa handia izan da? Nolako izaten ari da orain arte bizitako esperientzia? Erabat desberdinak dira, aldaketa handia dago. Eduki aldetik exigentzia igo arren, metodologia eta ikasi behar dena gustukoa izateak asko errazten du lana.

Noski, lan egin behar den arren, batxilergoan baino errazago eta gehiago gozatuz egin dut nik.

Batxilergoan baino askoz ordu gehiago ez ditut sartu,

baina bai hauek eraginkorra-
goak bihurtu.

Mekanikako Ingeniaritza gradu duala izanik, gogotsu zaude hurrengo urteetan bizi ahal izango duzun lan esperientziagatik? Zer espero duzu ikastea bertan?

Aukera oso interesgarria dela iruditzen zait. Klasean ikasitako gauzak nola aplikatzen diren ikusteaz gain, lan munduarekin lehen kontaktua edukitzeko aukera ematen du eta. Bertan klasean ikasi ezin daitezkeen gauzak osatzen joaten da, gradua bukatutakoan erronka berriei aurre egin ahal izateko. Aurtan hasi naiz DUAL formatuarekin, eta oso gustura gogotsu emaitzarekin.

“PBL proiektuaren azken emaitzarekin, denok oso gustura gelditu gara”

Lehenengo urtean garatu duzue PBL proiektua. Nola moldatu zara metodologia honekin? Momenturen batean estu eta larri egon gara, metodologia berria delako eta, erritmoa hartu arte, ordu asko ez dira aprobetxatzen.

Hala ere, PBL proiektuaren azken emaitzarekin, denok oso gustura gelditu gara. Esperientzia ona izan da, eta hobetzeko asko garatu den arren, aberasgarria dela esango nuke.

Alex Tello: “Usurbilen ez dugu aukera askorik izaten blues kontzertuez gozatzeko”

Blues kontzertua izango da datorren ostiralean, hilaren 22an 22:00etan Sutegin Jon Gurrutxaga eta Iker Piris Trioren eskutik. Alex Tello aktoreak antolatu du kontzertua eta berarekin izan da Noaua!, emanaldiaren nondik norakoak ezagutzeko.

NOAUA! Jon Gurrutxaga eta Iker Piris Blues Band arituko dira Sutegin. Egingo zeniguke bi artista hauen aurkezpen bat?

Alex Tello: Iker Piris Trio da berrez. Jon Gurrutxaga elgoibartarra da, Arima Beltza, Euskal Herrian bluesa egin duen talde garrantzitsu bateko kidea. Betidanik oso gustukoak izan ditut. Nire asmoa urtero herrian ekitaldi bat antolatzea da. Aurten ikusi dut Jon Gurrutxagak disko berria atera duela eta bilatzen dudana horrekin bat datorrela. Iker Pirisen kasuan, ibilbide luzea du eta nik berarekin teklatuan aritzen den Freddy ezagutzen dut, eta Freddy ere oso ona da, asko ematen du. Niri horrelakoak programatzea gustatzen zait, musika emanaldiak antolatzea, eta Usurbilen ez dugu aukera askorik izaten blues kontzertuez gozatzeko. Musikariok ikusteak merezi du.

Atea Teatro taldearekin antolatu duzu kontzertua. Zuretzat musika eta antzerkia iturri bereko bi ur dira? Gizarte Hezitzaile lanetan nabil, urtebete daramat antzerkitik aldentzen, ez interpretaziotik. Ikus-entzunezkoetan aritu naiz, laburmetraiak egiten, baina antzerkiko “desengainua” edo antzeko zerbait sentitzen dut. 2015ean antzerkiarekiko apustu sendoa egin nuen eta hiru obra aurkeztu genituen. Apustu oso handia izan zen eta trukean oso gu-



Jon Gurrutxaga bakarlarria eta Iker Piris Blues Band taldea zuzenean arituko dira Sutegin. Sarrera: 3 euro. Jon Gurrutxaga Urbil Artolarekin batera igoko da oholtza gainera. Promozio argazkian ageri dira biak.

ALEX TELLO

“Usurbilen ez dugu aukera askorik izaten blues kontzertuez gozatzeko. Musikariok ikusteak merezi du”

txi jaso nuen. Fase honetan, ordea, nahiago ditut zinea eta musika.


“Galerak” ikuskizuna antolatu zenuen azaroan Sutegin. Disko bat ere iragarri zenuen garaian. Noizko egongo da kalean? Maiatzean, Gaztelupeko Hotsak disketearen eskutik. Diskoa eta DVD-a. Sutegiko azaroko emanaldia sartzea erabaki dugu eta horregatik atzeratzen ari da prozesua.

Aktore ezaguna zara. Nataliren bideoklip berrian ikusi zaitugu. Nola sortu zen Natalirekin lan egiteko aukera? Ixak Arrutirekin aspalditik dut harremana Mendeku Itxuaketik eta. Abestien letrak idaz-


ten nizkien. Nataliren kasuan, Galerakerako deitu nien abesti bat ea asma zezaketen eta egin zuten. Orduan elkartrukea da: haiek eskatzen didatenean nik eman eta nik eskatzean beraiek eman. Zuzenekoan baita ere, haien kanta berriaz gain, Oihana Alkortaren kanta bat ere jo zuten eta beraz, Natali taldeak zerbait eskatzen badit ni prest.

Eta orain, Alex Tellok eta Atea Teatrok zer nolako proiektuak dituzte eskuartean? Etorkizun hurbilean diskoa plazaratzea. 2 urte daramatzagu horretan eta gutxi geratzen da. Aurrerago begira laburmetraiak. Telmo Iruretarekin film laburrak egiten ari naiz, 2017an hasi ginen eta berez luze baten proiektua daukagu. Ez dakit inoiz amaituko dugun. Urtean film labur bat edo bi egiten ditugu eta asmoa da film labur horiek ekarri eta luze bat egitea. Momentuz bi labur ditugu eta hirugarrena bukatzeaz. Bi aste barru hurrengo atala grabatuko dugu. Sei urterako lana badaukagu behinik behin. Ez dakit inoiz

proiektu hori amaituko dugun, ikusiko dugu. Niretzat garrantzitsuagoa da proiektua, hasiera hori. Diskoarekin ere gauza bera gertatzen zait. Ideia batzuk dauzkazu eta horiek bideratzea da niretzat erakargarriena. Gero hasitakoak amaitu egin behar izaten dira, baina... Beste kontu bat izaten da diruarena, hori izaten da parterik itxusiena, ez? Baina, tira, horretan gabiltza. Dagoeneko hamazazpi minutu eginda dauzkagu, eta atalen konturik garrantzitsuen zera da, modu independentean ikus ditzakegula. Atal bakoitzak bere xarma du eta lotura du batak bestearekin. Momentuz aktore dezente hartu dute parte: Elena Iruretak, Clara Badiolak, Jose Ramon Sorozek, Telmo Iruretak, eta hurrengoan Dorleta Urretabizkaia egongo da. Pixkanaka goaz. Xumea, baina aldi berean kalitatezkoa. Gauzak lasai eta mimoarekin egin behar dira eta pozik nago honekin guztiarekin, bai diskoan, bai laburretan ere talde oso ona osatu dut.



Betiko Sagardoa



Sagar gazi eta gozoko aurreneko zuku tantak jaitxi dira.

TXOTX 2019 Zabalik!

SAIZAR
Sagardotegia

ABANGARDIA & TRADIZIOA

Kale Zahar, 39 - 20170 USURBIL (Gipuzkoa) | 943 373 995 - sidreria@sidrassaizar.com
www.sidrassaizar.com

Tapa eta aurkibidea K prest



Agur esan diogu 2018 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2018ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

BAZKIDEEEN TXOKOA



martxoaren 21ean Zozketatuko dugu:

**AIALDE-BERRI
SAGARDOTEGIAN**

2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN
TXOTXI!

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / eukartea@noaua.eus

Ingemarreko langileak, greba mugagabea: “Errentagarria da eta inor ez dago soberan”

Lanpostuen eta lantegiaren aldeko borroka betean dira berriaz Ingemarreko langileak. Martxoaren 12az geroztik greba mugagabea. As-tetartean egon arren, lan eguna izanda ere, Atallu ingurutik igarotzen zaretenean, langileak lantegi atarian ikusiko dituzue. Hala daramate jada astebete baino gehiago, lantegi sarreran duten etxetxoan.

Bost orduko bi txandatan antolatzen dira. Hamar ordu egiten dituzte bertan, 8:00-18:00 artean.

Lantegi atarian dira, greba mugagabea, 47 langile kaleratu nahi ditu eta enpresak, haietatik 31 Usurbilgo lantegikoak. Beste 6 Lugoko lantegikoak dira eta gainerako hamarrak, “espainiar estatuan sakabanaturik dauden 5 biltegietakoak”. Langile guztioi aurkeztu zaien kontratu amaierako EEE honek helburu argia du, “Estatuko beste lantegiak erabiliz langileak kaleratzea eta lantegia 4 milioi euroko aktiboak izanda ixtea”.

Enpresak langile guztiontzat aurkeztu duen kontratu amaierako EEE salatu, lanpostuak suntsitu eta enpresa ixtea ez dutela onartuko adierazi zuten langileek, joan den martxoaren 15ean, ELA sindikatuak Donostian duen egoitzan egin zuten agerraldian.

Errentagarria da

Langileek ez dute egoera hau onartzeko asmorik. Ingemar errentagarria dela ziurtatzen dute. Argi diote, “Ingemar errentagarria da eta inor ez dago soberan”. Gogorazi zuten, azken hamarkadan eginiko aha-lerinari eusten segitzeko asmoa dute, lanpostuak mantentzeko eta Ingemari zabalik eusteko borrokatuko dira.



Ingemarreko langileek astebete baino gehiago daramate jada greba mugagabea, langile gehienak kaleratu nahi dituztela salatzen eta Ingemar itxi ez dadin eskatzeko.

2009az geroztik egin duten moduan. Orduko zuzendaritza berriak, urte hartatik “lantegia deskapitalizatuz joan da, ekoizpena deslokalizatuz eta langileak kaleratuz”, oroitu zuten joan den asteko agerraldian.

Hamarkada honetako kronologia honetan guztian, mugarri garrantzitsu bat ezarri zen duela bi urte. Urte haren hasieran, “orduko zuzendaritzak hartzeko dunden lehiaketa aurkeztu zuen, eta hortik hartzeko dunden ituna atera zen”. Iaz, 2018an, Ingemar taldearen baitan ziren Usurbilgo Ingemar S.A., Lugoko Ingemarga, S.A. lantegiak bat egin eta Grupo Ingemar S.L. sortu zuten. Enpresaren egoitza, Gipuzkoatik Galizara eraman zuten.

Urte hasiera honetan, “Usurbilgo lantegirako bideragarritasun-plan bat aurkeztu zuten”, zioten prentsaurrekoan.

Lantegiaren bideragarritasuna agerikoa dela azpimarratzen duten zenbait datu agertu zituzten agerraldian. “Lantegien bat egitearen aurretik, 48 milioi euro-

tan balioetsiak zeuden taldearen aktiboak; eta bat egitearen ostean, 29 milioi eurotan”.

Egungo zuzendaritza taldeak hilabete gutxi barru, hartzeko dunden lehiaketatik ateratzeko bere gain hartu zuen zorrari aurre egin beharko dio. Baina “nola egingo diote aurre zorrari, balio erantsirik handieneko produktua egiten duen lantegia (Usurbilgoa) ixten badute?” galdetzen dute langileek. Gogorazten dutenez, 4 milioi euroko aktiboak ditu lantegiak. Errentagarria da, baina ohartzarazten dutenez, “zuzendaritzak gatazka uxatu nahi du Usurbildik, estatuko gainerako lantegiak erabiliz, kaleratzeak errazteko, eta gatazka Gipuzkoatik urruntzeko”.

Udala, langileen eskutik

Usurbilgo Udal ordezkariak bertaratu zen joan den astean langileengana, babesa eta elkartasuna adieraztera. Udalak beti langileen eskutik jardungo duela helarazi zieten.

Azken lan gatazka, 2017an

2009an hasi zuten lanpostuen alde eta Usurbilgo lantegia irekia mantentzeko borroka. Bide luze eta gogorra jorratu dute ordutik Ingemarreko langileek. Hamarkada luze bateko borroka Ingemar ez ixteko. 2017an izan genuen azkeneko langileon berri. Urte hartan, langile guztiak kaleratu nahi izan zituzten zuzendaritzak. Iraitlean akordio bidez, lanpostu kopurua erdiraino murriztea lortu zuten. Gainerako langileentzat, neurri ez-traumatikoak aplikatzeko adostasunera heldu ziren.



Greba mugagabea diren langileak, Ingemar atarian.

Felix Sarasolari lagun arteko agurra, martxoaren 31n

Urte amaieran zendu zen usurbildarrari merezitako agurra eman nahi diote lagun eta senideek, martxoaren 31rako prestatu dioten omenaldian. Lagun mordoa utzi du eta Felixek itsasoz alde bietan; bai Usurbil eta Lasarte aldean, Euskal Herrian baita Kuban ere. Lagun talde jendetsu eta zabal honetako ordezkartza bat bildu da asteotan Potxoenean, Sarasolari omenaldia prestatzeko.

Lagunak, senideak, Kuban Felixekin bizi izandako jendea... Kuban egin zioten omenaldia duela hilabete batzuk, hemen ere egin nahi ziotenen taldetxo osatu da bistan denez. Argi zuten omenaldia ospatzeko lekuak Usurbil behar zuela izan, Felixen sorterrria alegia. "Oso maitea zuen Usurbil, eta hala behar zuela ikusi genuen hasieratik".

Eta solemnitatetik urrundu behar zutela, Sarasola beti festa, musika eta otorduen inguruan mugitu zelako.

Lagun mordoa batuko ditu omenaldian

Hortik sortu zen, bere lagunak prestatu dioten emanaldia Hitzordua martxoaren 31n, eguerdiko 12:00etan frontoian. Bi zati izango ditu ekitaldiak. Lehenik, denetarikoa osagaiak eta Felixen lagun mordoa batuko duen emanaldia. Musikaz eta kantuz blai-tua egongo dena.

Aurpegi ezagun ugari espero dira ekitaldian. Musika mundutik Joseba Tapia, Olatz Korta, Duo Jade bikote kubatarra, Usurbilgo Kantu Taldea... Felixek Txixardin Beltza jatetxea izan zuen garaiari lotutako lagun bat baino gehiago, baita Porrotx ere,



"Berak bizitza bizi zuen moduan, festa girotik" parte hartzera animatzen gaituzte, martxoaren 31n Felix Sarasolari egingo zaion herri omenaldian.

FELIX SARASOLA

"Joan den lekuetara beti bere alea aportatu izan du, ez bakarrik beretzat, baizik baita ere komunitatearentzat"

eta Argiako kideak. Lasarteko jatetxean ospatu baitziren Argia Sarien edizio bat baino gehiago. Baba beltz txiki kofradiaren sortzaileetako bat izanik, kofradekideek hartuko dute parte baita hitzorduan.

Eskuzabala eta laguntzeko prest beti

Ikusten duzuen jende mordoa espero da ekitaldian, herrikoak eta kanpokoak. Lagun zerrenda amaigabea baitzuen Felixek, bai Euskal Herrian zein Kuban. Omenaldiko antolatzaileen esanetan, horrek erakusten du Felix nolakoa zen.

Nolakoa zen galdetuta, bere eskuzabaltasuna nabarmendu digute omenaldiko antolatzaile taldeak. "Joan den lekuetara beti bere alea aportatu izan du, ez bakarrik beretzat, baizik komunitatearentzat, herriarentzat".

Kubako bere etxeko ateari zabalik izaten zituen joaten zen edonorentzat. "Kuban bazuen euskal familia poten-

te bat". Euskaldunen jaietako eragile nabarmena zen Felix. Baina oro har, beti "edozein ekintzatan laguntzeko prest, otorduak prestatzeko... Beti izan da oso aktiboa".

Lagunen prestasuna, erabatekoa

Esanguratsutzat jotzen dute omenaldiko antolatzaileek, ekitaldirako "edozer eskatu diogun edonor prestatu dela laguntzeko".

Omenaldiko antolatzaileek ekitaldian parte hartzera animatzen gaituzte, maitasun eta festa giroko lagun arteko agur bat izango dela aurreratu diote NOAAU!ri, "berak bizitza bizi zuen moduan, festa girotik".

Lagun arteko omenaldia

■ Eguna: martxoak 31, igandea.

■ Ordua: 12:00.

■ Tokia: Usurbilgo frontoia.

■ Zehaztasunak: Felix Sarasolaren lagunak prestatutako emanaldia eta hamaiketakoak.

■ Oharra: Felix Sarasolaren omenaldia prestatzeko azken bilera martxoaren 26an 18:00etan Potxoenean.

■ Antolatzaileak: Felix Sarasolaren lagun taldea.

"Gure oroitzapenak"

Felix Sarasolari egingo zaion omenaldi egunean, "Gure oroitzapenak" film proiektzioa antolatu du NOAAU! Kultur Elkarteak 18:30etan hasita Sutegiko auditorioan. Felix Sarasolaren lagun onenatariko baten, Joseba Sarrionandiaren inguruko ikus-entzunezkoa dugu honako hau.

"Sarri iruditan agertzea du helburu" filmak. Euskal Herriko nahiz atzerriko 12 zinemagilerekin piezek osatzen dute "Gure oroitzapenak" proiektua. Egitasmoan parte hartu duten zinemagileen artean dira, Asier Altuna, Mireia Gabilondo, Josu Martinez, Fermin Muguruza, Maialen Sarasua, Maider Oleaga... Guztira berrehun bat laguneko auzolanaren emaitza da film hau.

"Proiektuan parte hartzen dute zinegile guztiak badute harremanik poetarekin, dela pertsonala eta afektuzkoa, dela literarioa, dela miresmena...". Informazio gehiago: gureoroitzapenak.adabaki.eus

Felix Sarasolaren omenaldi egunez

■ Eguna: martxoak 31, igandea.

■ Ordua: 18:30.

■ Tokia: Sutegiko auditorioa.

■ Sarrerak: 6 euro (aldez aurretik Lizardin eta NOAAU! K.E.-ren egoitzan). Bazkideek 4 euro, NOAAU! K.E.-ren egoitzan aldez aurretik.

■ Antolatzailea: NOAAU! K.E.



"Gure oroitzapenak" film proiektzioa, martxoaren 31n.

“Autobusa erori da erriora!”

1967ko abenduaren 13an, Santa Luzia egunez, La Costa Vasca-ko autobus bat erriora erori zen Lasao baserriaren parean. “Goizeko 7:30ean izan zen. Etxetik (Kaparoz baserria) sentitu nuen danbatekoa. Berehala txirrindan joan nintzen ikustera”, Esteban Iribarrek azaldu digunez. “Autobusa zutik zegoen uretan. Errioa korrientearekin zetorren”. Lasako ukuiluko atearen kontra hainbat neska topatu zituen. “Aginaga eta Txokoaldekoak, beren gabardina zuriekin, erabat bustita eta dardarka. Irudi horiek bizirik mantentzen ditut”.

Ezagun asko tartean

50 urte geroago, ondo gogoan du istripua Esteban Iribarrek. “Garai hartako prentsara joan eta hantxe aurkitu ditut hainbat ezagunen izenak, Mari Koro Zapirain (Fermindegikoa), Maria Lurdes Agirre (Galdardi azpikoa), Kizkitza Urbis-tondo, Jose Antonio Leonet, Marijuli Iturralde (txokoalde-tarrak) eta Maite Bereziartua, Joakin Atxega, Marifeli Eskudero eta Manolo Begiristain (Aginagakoak)”.



“Zutik, bere erruberen gainean”. Errepidetik erriora erori eta halaxe geratu zen autobusa, Lasao baserriaren parean. Alderantziz erori izan balitz, ondorioak larriagoak izango ziren. Argazkia: El Diario Vasco, 1967ko abenduaren 14an.

ISTRIPUAREN ONDORIOAK

“Ezbeharraren ondorioz, La Costa Vasca autobus konpainiako kobradorea hil zen. Zaurituak ordea, bat baino gehiago izan ziren”

Hildako bat, zauritu ugari

Larriena autobuseko kobradorea izan zen, 17 urteko gazte

bat. “Zalantza daukat handik egun batzuetara ez ote zen zendu”. Esteban Iribarren susmoa Manolo Begiristainek berretsi digu. Garai hartan, txoferrarekin batera bidaia-txartelak kobratzen zituen langilea ere autobusean joaten zen. Hildako bakarra bera izan zen, La Costa Vasca konpainiako kobradorea. Zaurituak ordea, bat baino gehiago izan ziren. Tartean, Ma-

nolo Begiristain bera, Lertxundi baserrikoa. Hanka hautsi eta sei hilabetez igeltoari lotuta eduki zuen. Istripuaren ondorioak pairatzen ditu oraindik: hanka finagoa du eta txorkatilaren mugimendua mugatua du.

Esteban Iribarren azalpenekin batera, hainbat testigantza batu eta prentsan topatu ditugun aipamenak jaso ditugu ondoko erreportajearen.

Hemeroteka

“Aurreko gurpil bat baju samar zuela iritsi zen Oriora”

“Atzo 7:30ak eta 8:00ak artean, La Costa Vasca konpainiako CE-2997 matrikuladun autobusa ibaira erori zen. Zarautz eta Lasarte arteko ibilbidea osatzen ari zen eta 4.970 kilometroan irrist egin eta Oria ibaira erori zen. Usurbilgo Lasao baserriaren parean gertatu zen. Antza denez, aurreko gurpil bat baju samar zuela iritsi zen Oriora. Horren aurrean, atzeko eserleketan esertzeko eskatu

zitzaien bidaiariei, aurreko gurpilak gehiegi ez kargatzearen. Ondoren gertatu zen ezbeharra. Irrist egin ondoren, autobusak itzulipurdi bat eman zuen eta erruberen gainean geratu zen Oriako uretan. Istripua gertatu zenean oraindik eguna zabaldu gabe zegoen. Une horretan, 33 bidaiari zeramatzan autobusak”.

1967ko abenduaren 14ko El Diario Vasco-ren kronikatik jaso (erredakzioan itzulia).



Autobusa errioren eta eskubitara, jendea begira. N634 errepidean, Lasao baserri parean gertatu zen istripua. Argazkia: El Diario Vasco.

Esteban Iribar: “Danbatekoa entzun nuen, bizikleta hartu eta gertatutakoa ikustera joan nintzen”

Autobusa erori da erri-
ra! Esaldi hori du go-
goan Esteban Iribarrek.
Kaparotzen bizi zen orduan.
“Danbatekoa entzun, bizikleta
hartu eta gertatutakoa ikustera
joan nintzen”. 13 urte zituen
orduan Estebanek. Orduetik
gordetzen dituen oroitzapenak
eta duela gutxi hemerrotekan
irakurritakoak azaltzera hur-
bildu zaigu NOAUA!ra.

**NOAUA! 1967ko abenduan
eman zen istripua. Zenbat urte
zenituen orduan?**

Esteban Iribar. Gogoan dut San-
ta Luzia egunez izan zela. 13
urte nituen orduan eta base-
rrian bizi nintzen. Ohetik en-
tzun nuen danbatekoa.

**Autobus horrek egunero ibilbi-
de berbera osatzen al zuen?**

Bai, bai. Zarauztik Lasartera
joaten zen eta handik Hernani-
ra luzatzen zen. Hurrengo bost
urtetan Hernanira ibili nintzen
joan etorrian, eta autobus ho-
rretan joaten nintzen. Goizeko
7:30ean hartzen nuen nik eta
8:00etarako Hernanin ginen.

**Zuk non hartzen zenuen auto-
busa?**

Etxe ondoan egiten zuen pa-
rada, Kaparotzen. Guretzako
eta handik gora zeuden baserri
guztientzako. Akordatzen naiz
danbatekoaz eta berehala jen-
dea berriketan.

**Dena den, Lasao parean izan
zen istripua, ezta?**

Lasao baserriaren pare-parean,
bai. Danbatekoa entzun, bizi-
kleta hartu eta gertatutakoa
ikustera joan nintzen. Garai
hartan gure etxe ondoan se-
kulako istripu pila izaten zen.
Bihurgune horretan hildakoak
dezente ezagutu ditugu.

**Autobusa La Costa Vasca
konpainiakoa zen. Nondik**



“Lasao jendea bizi zen orduan eta haiek lagunduta aterako zituzten erriotik”. Esteban Iribarrek 13 urte zituen istripua gertatu zenean.

ESTEBAN IRIBAR

**“Gogoan dut Mari Koro
Zapiriain ez zela agertzen
eta bere aita, Joxe
Zapirain Fermindegikoa,
uretara ibili zela alabaren
bila. Azkenean azaldu
zen Mari Koro, baina ez
uretara. Leihotik atera
eta sasi artean
erori zen nonbait”**

nora joaten zen autobusa?

Aiatik Donostiara arteko bidea
osatzen zuen egunero. Micheli-
nen 6:00etako erreleboan sartu
behar zuten langileak goizeko
5:30ekoan joaten ziren.

Nik 7:30ekoa hartzen nuen.
Lasarte-Oriara joaten zen le-
henbizi eta handik Hernanira.
Delineanterako ikasten nuen
Hernanin.

**Kronikek diote autobusa zutik
geratu zela.**

Hala da. Zutik, bere erruberen
gainean. Ura leihoaren erdi
pareraino zuen. Hazita zebi-
len erria eta korrontearen zuen.
Orduko prentsako argazkietan
begiratu dut eta ura nahastuta
zegoela dirudi.

**Lasao ingurura hurbildu zi-
nanean egoera ez zen batere
samurra izango.**

Ni iristerako ia bidaiari gehie-
nak goian zeuden. Ez dakit
nola atera zituzten erriotik.
Mugimendu handia zegoen.
Gogoan ditut Hernaniko es-
kolara zihoazen neskak. Agi-
nagakoak eta Txokoaldekoak,
tartean. Lasako baserri on-
doan zeuden zutik eta darda-
ka, garai hartako gabardina
zuriekin jantzita. Autobuseko
kobradorea hil egin zen erreze-
loa dut.

**Orduko egunkarietan oihar-
tzun handia izan zuen istri-
puak. Hildakoaz gain, zauri-
tuak ere asko izango ziren,
ezta?**

Manolo Begiristain izan zen
kaltetuena, hanka hautsi zue-
la uste dut. Gainontzekoek ez
zuten gauza larririk izan. Go-
goan dut Mari Koro Zapiriain
ez zela agertzen eta bere aita,
Joxe Zapirain Fermindegikoa,
uretara ibili zela alabaren bila.
Azkenean azaldu zen Mari
Koro, baina ez uretara. Leihotik
atera eta sasi artean erori zen
nonbait.

Garai hartan ez zeuden egun-

**go makinak, ezta egungo sal-
bamendu sistemak.**

Erriotik jendea ateratzeko ez
dakit nola ibili ziren. Lasao
orduan jendea bizi zen eta
haiek lagunduta aterako zituz-
ten.

**Eta haiekin batera, errepidean
zebiltzan autoetako gidariak
ere arituko ziren erreskate la-
netan.**

Garai hartan errepidean mina
hartutakoak kotxeetan har-
tzen ziren, zapi zuria atera eta
bozina joka, aurrera! Zauritu-
takoak Donostiako ospitalera
eraman zituzten.

**“Bizikletan jende
asko joaten zen
lanera garai
hartan”**

**NOAUA! Nolakoak ziren or-
duko ibilgailuak?**

Esteban Iribar. Oso gogoan
dut. Autobus zahar bat
zen, Ceuta matrikuladuna,
forma borobilekin eta oso
berezia. Sartu eta bertan
motorra zuen, salientea,
eta hor gainean jendea
joaten zen eserita.

**“Michelinen bizikle-
ta parking handia
zuten”**

**1967an edonork ez zuen
auto bat izango ezta? Lan-
gile asko autobusean ibili-
ko ziren joan etorrian.**

Eta bizikletan ere jende
asko joaten zen lanera.
Orietik asko eta Aginaga-
tik gehienak. Michelinen
bizikleta parking handia
zuten. Estalia, sarbidearen
parean. Dinamo bidezko
faro txiki batekin ibiltzen
ziren eta bizikleta gehie-
nek xextoa zuten atzean.

Manolo Begiristain: “Egun hartan txoferrak ordezeko gurpila jendartean zeraman, pentsa”

1967ko Santa Luzia eguneko autobus istripuak hildako bat eta zauritu ugari eragin zituen. Larrien artean zen Manolo Begiristain. Berak eta Miren Mayozen orduko oroitzapenak ekarri dizkigute gogora.

NOAUA! Istripua gertatu zenean 14 urte zenituen. Egune-ro hartzen al zenuen autobus hori?

Manolo Begiristain. Egunero, Hernaniko Eskola Profesionalera joateko. Mekanika ikasten nuen orduan. Goizean goiz hartzen genuen eta arratsaldean, bueltakoan ere, autobusez bueltatzen ginen Hernanitik.

Hortaz, asko eta asko ikasleak izango zineten.

Manolo Begiristain. Langile jendea ere bazegoen. Haiek Michelinera joaten ziren lanera eta gainontzekoak Hernanira joaten ginen ikastera. 14-17 urte adin tartekoak. Arreba ere autobusean zen, eta Migel Angel koadrilakoa, eta Mari Koro, eta Mari Feli... Orduan kotxe gutxi zegoen eta jende pila bat ibiltzen zen autobusean.

Non hartzen zenuen zuk?

Manolo Begiristain. Etxaurrean bertan, Lertxundi baserrian (Aginagan). Orduan parada



“Arreba ere autobusean zen, eta Migel Angel koadrilakoa, eta Mari Koro, eta Mari Feli... Orduan kotxe gutxi zegoen eta jendea autobusean ibiltzen zen”.

MANOLO BEGIRISTAIN

“Hanka bateko tibia eta perone hezurak hautsi nituen. Mundu guztia atera zen autobusetik eta ni hantxe geratu nintzen, zain. Halako batean atera ninduten”

asko egiten zituen autobusak. Ama Donostiako Bretxako azokara joaten zen berdura saltzera, eta bera ere autobusean ibiltzen zen. Saldu beharrekoa autobusean kargatu eta azokaraino joaten zen.

Nola gogoratzen duzu istripu eguna?

Miren Mayo. Ni ez nengoen autobusean baina oso ondo akordatzen naiz. Zazpi urte nituen orduan. Gure baserria

konpontzen ari ziren egun haietan eta beste etxe batean bizi ginen. Lehengusua etorri zen oihuka, Costa autobusa erriora erori da herriko jende pila batekin, eta hilak daude! Une hori oso gogoan daukat. Oso inpaktantea izan zen. Jende asko ibiltzen zen autobusean garai hartan.

Manolo Begiristain. Jende pila bat gindoazen. Ez dakit zergatik, baina egun hartan txoferrak ordezeko gurpila jendartean zeraman. Pentsa! Gaurko egunean ez zen posible izango.

Autobusak atzekaldean asiento gutxi eta espazio pila bat zeukan. Gurpilaren gainean nindoala uste dut. Errepidean gindoazen eta konturatu orduko erriogan geunden. Tartean gertatu zenaz ez naiz akordatzen.

Zutik erori zen autobusa. Gurpilen gainean geratu zela irakurri dugu orduko prentsan. **Manolo Begiristain.** Hala da. Autobuseko kobradorea hil egin zen istripu hartan. Autobusa beste aldera erori izan balitz, han geldituko ginatete denak.

Sei hilabetez, hanka mugitu ezinik

Zauritueta bat zu izan zinen. Egun asko eman al zenituen ospitalean?

Manolo Begiristain. Tibia eta perone hezurak hautsi nituen. Haustura irekia izan zen. 15 bat egun egin nituen Gurutze Gorriako ospitalean, Donostian. Eta igeltsoarekin sei hilabete egin nituen. Hanka lotuta eta geldi. Meheago geratu zitzaidan hanka hori, ia garatu gabe (orain ere hala du). Txorkatila horrek ere joko gutxiago du. Ikasturtea galdu nuen. Abenduan izan zen eta geroztik ez nintzen eskolara joan.

Miren Mayo. Bere amak aha-lerin handia egin zuen. Garai hartako medikurik onenaren-gana eraman zuen, Burutara-nengana. Ahalegin handia egin zuen baina ez zen ondo osatu.

Segururik edo ez al zenuen kobratu?

Manolo Begiristain. Zerbait kobratu genuen bai.

Hemeroteka

“Bi sokekin atera ninduten, tiraka”

Istripuaren biharamunean, Manolo Begiristaini elkarrizketa hau egin zioten ospitalean.

Zer egiten ari zinen istripua gertatu zen unean?

Gurpil baten gainean nindoan eserita. Aurrera begira.

Egia al da autobusak irrist

egin zuela?

Ez. Zulatu batek atera gintuen errepidetik.

Erortzean zer sentitu zenuen?

Ez nuen ezer sentitu. Zarata handia entzun zen.

Noiz jabetu zinen istripuaz?

Uretara erori eta kolpea sentitu

nuenean.

Beldurtu egin al zinen?

Bai, dezente!

Zure kabuz atera al zinen?

Bi sokekin atera ninduten, tiraka.

Hotza al zegoen ura?

Bai.

Zein izan zen bidaiarien erreakzioa?

Ezinegon handia eragin zuen. Oihu asko entzun nituen. Jendea atera nahian zebilen, modu desesperatuan.

La Voz de España egunkarian argitara emana, 1967ko abenduaren 14an. Kazetaria: R. Pastor (erredakzioan itzulia).

Udalak jarritako desfibriladoreak erabiltzen jakiteko ikastaroak

Bihotz-birika geldialdia edonori gerta dakioke, eta bizia arriskuan jarri. Horregatik ezinbestekoa da, halako egoera larriari ahalik eta azkarren aurre egiteko prest egotea. Nola jokatu, zer egin jakitea. Orain arte Harane futbol zelaian eta Oiardo Kiroldegian zeudenekin batera, Usurbilgo Udalak lau desfibriladore jarri ditu Kaxkoan eta auzo ezberdinetako udal eraikin edo toki publikoetan. Gailuok gutako edonork nola erabili jakiteko ikastaroak antolatu ditu. DYA-k eskainiko ditu. Bertako bolondres Mikel Artola Baldarekin bildu da NOAUA!.

NOAUA! Nondik dator ikastarook antolatzeko ideia?

Mikel Artola Balda: Guk beti nahi izan dugu, sanitarioa ez den jendeak bihotz eta birika susperketaren inguruan gehiago jakitea eta desfibriladoreak jartzea, hartara, eskaini daitezkeen laguntza handitu eta egon daitezkeen kalteak gutxitzeko. Desfibriladoreak dauden gunee-tan egoera larriatik bizirik ateratzeko aukera handiagoa dago.

Edozein lekutan gerta bai-

taiteke halako egoera bat. Zoritxarrez, edozein lekutan edozein pertsonari. Okerrago dena, zure ondoko bati gerta dakioke, eta zuk zer egin ez dakizula geratu. Antolatu ditugun ikastaroen bidez, halako egoerak benetan gerta daitezkeela jendea ohartarazi eta gertatzen direnean zer egin irakatsi nahi dugu.

Sarritan erabiliko dituzuen desfibriladore baten funtzioa zein da?

Gure bihotza elektrizitatez doa. Elektrizitate hori guztiz geratu edo erritmo oso irregular batean funtzionatu dezake. Desfibriladoreak funtzio elektriko hori egiten du deskargen bidez eta masajeekin batera bihotzaren erritmoa berreskuratzen, normaltzen laguntzen du.

Desfibriladoreak eskuragarri jarri dira auzoetan, gertutasun hori bermatu nahi delako ezta?

Usurbil herri txikia izan arren, auzo sakabanatuak baititu. Bihotz-biriken gelditze bat gertatzean zu bakarrik baldin bazaude, desfibriladore bat gertu izanda askoz laguntza handiagoa izango duzu. Sanitarioa etortzean ere zuk jakitea non



Mikel Artola Balda usurbildarra, DYA-ko bolondresa.

dagoen lagungarria izango da, zuk pertsona hori artatzeko konfiantza izan ez arren. Horregatik, ikastaroak leku ezberdinetan egiten saiatu nahi dugu.

Desfibriladoreak jarri diren lekuetan izango dira ikastaroak.

Bai. Animatzen den orori bi ordutan, modu azkar, simple eta praktikoenean, euskaraz, baina bere osotasunean halako egoeretan zer egin irakasten saiatuko gara. Batez ere beldurra kentzeko. Normala da beldurra sentitzea eta blokeatua geratzea, baina ikastarookin gutxienez zerbait egiten jakiten ikastea nahi dugu. Bestela, gu beldurrez, geldirik, ezer egin gabe eta pertsona hori hor geratuko da. Horregatik, desfibriladoreak jarrita eta ikastaro hauekin, pertsonen bizitzak salbatzen lagundu dezakegu.

Ikastaroak, desfibriladoreen tokietan

Desfibriladoreak erabiltzen ikasi eta bihotz-biriken geldialdia ematen den kasuetan, susperketa teknikan trebatzeko saio irekiak antolatu ditu Usurbilgo Udalak herritarrentzat hurrengo astean, gailuok dauden lekuetan. Segidan duzue aipatu saio hauen egutegia. DYA-ko bolondresak eskainiko dituzte.

Horrez gain, udaltzain eta udal langileek ere formazio berezia jasoko dute. Udaltzainek hain zuzen, larrialdi kasueta-

rako desfibriladore eramangarria izango dutela berri eman du Udalak.

Ikastaroen egutegia

■ Martxoak 25, 18:30-20:30 Aginagako Arrate Elkartean sarreran.

■ Martxoak 26, 18:30-20:30 Santueneko frontoi ondoko Aldapeta udal-lokalaren sarreran.

■ Martxoak 29, 16:30-18:30 Zubietako frontoiaren atzeko paretaren txoko batean.



Usurbilgo Udalaren irudi honetan ikus daitezkeen, desfibriladore-tako bat Santueneko frontoi ondoan jarri du.

■ Martxoak 29, 19:00-21:00 Kaxkoan. Sutegi kultur etxeko pasabidean.

Ziortzako saioa

Honako ohar hau helarazi dute NOAUA!-ra Ziortza G.E.-tik: "Kaixo DBH1 eta DBH2. mailako gazteak! Dakizuen bezala martxoan saio bat izango dugu! Saioa ostiral honetan, martxoaren 22an izango da 20:00etan. Beti bezala, Ziortzako lokalaren parean geratuko gara. Animatu, zuen zain izango gara!".

Bulkada Eguna, Gazte Topagunera begira

Apirilaren 19tik 22ra Lemoan ospatuko den Gazte Topagunera begira Bulkada Eguna antolatu du Usurbilgo Ernaik astebete barru.

Martxoak 30, larunbata

■ 09:00 Intxortara (Elgeta) irteera, Bordatxo paretik. Memoria historikoaren errekreazioa eta hamaiketakoa. Izen ematea: aurrez Aitzagan, 10 euro.

■ 19:00 Gazte Topagunearen aurkezpena Sutegin: esperientziak, bizipenak, musika, bideoak...

■ Oharra: Lemoako apirilak 19-22 arteko Gazte Topagunerako bonoak 70 eurotan daude Aitzagan salgai.

Txirikorda proiektuari lotutako parte hartze saioa

Etorkizunean Ugartondoko urbanizazio berrian kokatuko den belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren proiektua definitzen segitzeko parte hartze saio berria izango da larunbatean (martxoak 23) 10:30-12:30 artean Potxoenean. Oraingoan "bizikidetza", hortxe jorratuko duten gaia. Aurreikusia dagoen azken saioa apirilaren 6an izango da. "Funtzionamendua" hartuko dute ahotan.

Miriam Arrillaga Beloki, Emakume Master Cupeko txapeldunordea

Emakume Master Cup Txapelketako txapel-dunordea du Miriam Arrillaga Beloki, Patri Espinarrin batera. Zorionak!

Igande eguerdian, martxoaren 17an jokatu zuten txapelketako final handia Zumarragako Beloki pilotalekuan. “Hasieran oso ondo aritu ginen, baina aurkariak 12-0 aurreratu zitzaizkigun eta gero pixkanaka behera etorri ginen”, adierazi dio Miriamek NOAUA!ri.

Emaizta aparte utzita, frontoi barruan bizi izandakoa ez du berehala ahaztuko. “Frontoira sartu eta betea ikusi dudanean ikaragarria izan zen”, Arrillagaren esanetan.

Pilotalekura sartu ziren unetik eta partida osoan etenik gabe jaso zuen bertaraturikoen berotasuna. Bai senide eta lagunena. “Partida guztian isildu gabe aritu ziren, izugarri animatzen zuten. Denen aldetik babes handia jaso dut”.

Haiekin batera, “pim pam pum, Miri ta Patri txapeldun!” zioen pankarta eseki zuten frontoian gainera, bi pilotarion irudiekin. “Bertara joan zirenei eskerri asko. Hau guztia posible egiteko ikus-entzuleak behar dira. Asko animatu nautte eta eskerri asko! Ia hurrengoan txapela jantzita ospatze-



Miriam Arrillaga Beloki, Emakume Master Cup txapelketako Zumarragako finala amaitu berritan, gainerako lehiakideekin.

rik dugun!”.

Txapela ez du eskuratzerik izan, baina zapore gozoz amaitu du joan den otsailen hasitako txapelketa. “Leire Etxaniz eta Leire Garai finalisten aurkako lehen partida galdu genuen, garrantzitsuak ziren beste biak irabazi genituen”.

“Ia atzetik datozen pilotarietiek segitzen duten”

Aukera bazela jabetu arren, ez zuen finaleraino iristea espero. Finalerdiko garaipena irabazteak aldatu zuen guztia. Horregatik dio, “nire jokoarekin oso gustura nago”. Igande eguerdiko finala Euskal Telebistak zuzenean eskaini zuen. Egunotan hedabideek ere hurbileko jarraipena, jarrai-

pen estua egin diote Emakume Master Cup txapelketari. Aurrerapauso garrantzitsutzat jotzen du Arrillagak. “Jendeak ikusten zaitu, kalean batzuk ezagutzen zaituzte. Guretzat aurrerapauso handia izan da”. Eta horretan segitzeko asmotan dira. “Oraindik mutilengandik urruti gaudela nabari da. Baina beno, guk gure bidea egingo dugu eta ia atzetik datozenek segitzen duten”, desio du herriko pilotariak.

Etenaldi handirik ez du izango Miriamek, igandeko finalaren ostean. Pala lehen denboraldia hasia du, Gravn txapelketa izango dute jokoan asteburu honetatik aurrera. “Ia oraingoan txapela ekartzen dugun”, adierazi dio NOAUA!ri.

Amador Granados Alkorta, Holandako Mundialean

Asteburuan Apeldoornen (Holanda) ospatu den mundu mailako txapelketan parte hartu du Amador Granados Alkortak. Alfonso Cabello eta Eduardo Santasekin osatu zuen taldekako proban bosgarren amaitu zuen; 50.648 izan zen egin zuten denbora. Marka ona, baina domina irabazteko adinakoa ez. Kilometroko proban ere parte hartu zuen usurbildarrak. 14. postuan sailkatu zen; 1:19.602 denboran amaitu zuen proba.

Granadosek sare sozialetan bidez adierazi duenez, “denbora ona egin arren, ez da aski izan. Bosgarren postuarekin itzuliko gara etxera, laugarren postutik hamarren batera. Pena, lan asko egin dugu baina ez da posible izan”.

Aukera gehiago 2020an

2020an Tokion ospatuko diren olinpiar jokoei begirako proba puntuagarri eta garrantzitsua zen asteburukoa. Aipatu moduan, dominarik gabe itzuli da usurbildarra etxera. Halere, Tokioko hitzordura begira, aurretik proba erabakigarri gehiago izango ditu usurbildarrak. Mundu mailako errepideko bi txapelketa eta 2020ko pistako mundiala. “Oraindik Kanadako mundiala geratzen zaigu, olinpiar jokoan urtea izango den 2020ko urtarri-lean. Zutitu eta entrenatzen segitzea tokatzen zaigu”, dio Granadosek Facebook bidez, jarraitzaileei eskerrak helaraztearekin batera.



Amador Granados Alkorta, Holandako mundialean.

Senide eta lagunenez inguratua

Etxeko eta lagunenez babes eta animuen berotasuna jaso zuen Miriam Arrillaga Belokik, martxoaren 17ko final handian. Ondoko irudia, partida hasi aurretik ateratu zuten. Miriam txapelketa honetan eta bere kirol ibilbidean bidelagun izan dituen etxekoez inguratua dago. Senide eta lagunenez babesarekin batera, pankarta galanta eseki zioten frontoi erdian.



Jubenil mutilen Euskadiko Txapelketa, asteburuan Oiardo Kiroldegian

Asteburu mugitua datorrigu Oiardo Kiroldegian. Jubenil mutilen mailako Euskadiko eskubaloi txapelketa ospatuko da bertan, ostiraletik igandera.

Lehiakideen artean etxe-koak, Usurbil K.E.-ko kideak. Usurbildarrek Zumaia, Tolosa eta Zarauzko eskubaloi taldeak izango dituzte aurkari.

Martxoaren 22tik 24ra, eguneko bi neurketa jokatu dira. Ikusmina izango da ziurrenik, bereziki igandean.

Martxoak 22, ostirala

- 18:15 Txikixa Taberna Pulpo EK-Tolosa CF Eskubaloia
- 20:00 Gran Camping Zarautz ZKE-Usurbil K.E.

Martxoak 23, larunbata

- 17:45 Gran Camping Zarautz



Ondoko argazkian dituzue, jubenil mutilen Euskadiko Eskubaloi Txapelketa jokatu duten Usurbil K.E.-ko kideak.

ZKE-Tolosa CF Eskubaloia.
■ 19:30 Usurbil K.E.-Txikixa Taberna Pulpo EK

Martxoak 24, igandea

■ 10:45 Txikixa Taberna Pulpo EK-Gran Camping Zarautz

ZKE

■ 12:30 Tolosa CF Eskubaloia-Usurbil K.E.

Antolatzaileak: Usurbil K.E., Usurbilgo Udala eta Euskal Eskubaloi Federazioa.

Usurbilgo harria, lehiara maiatzean

Agendan txoko bat egin beharreko kirol hitzordua biziko dugu bi hilabete barru, maiatzaren 12an. Igande horretara aurreratuko dituzte hil bereko San Ixidro Eguneko ospakizunak. Azoka eta bestelako ekitaldiekin batera, Euskal Herriko giza proba txapelketa ospatuko da. Antolakuntza prestaketa lan betean da jada. Honako irudi hau helarazi dute NOAUA!ra. Usurbilgo harri handienarekin lehiatuko dira giza probako parte hartzaileak.



Maiatzaren 15eko San Ixidro Eguneko ospakizunak hilaren 12ra aurreratuko dituzte. Tartean, Euskal Herriko giza proba txapelketa jokatu da.

Futbola Haranen

Martxoak 23, larunbata

- 09:30 Alebin neskak: Udarregi 5A-Udarregi 6A Udarregi 6B-Langile A
- 10:45 Infantil neskak: Udarregi Usurbil F.T.-Zestoa
- 12:00 Infantil mutilak: Usurbil B-Texas
- 15:30 Jubenilak: Usurbil F.T.-Danena KE
- 17:45 Kadete neskak: Usurbil F.T.-Hondarribi FE

Martxoak 24, igandea

- 19:30 Erregionalak: Usurbil F.T.-Segura KE

Aste Santuko Txokoak,

Usurbil F.T.-ren eskutik

Aurreko urteetan bezala, datorren udaberriko oportetarako txokoak antolatzen ari da Usurbil F.T. Apirilaren 23tik 27ra izango dira aurten. Gogoan izan, denetariko kirol jardueretan parte hartzeko aukera izaten dutela gaztetxoek. Kirolarekin jolasean aritzen dira bost egunez, herriko txoko ezberdinetan. Aurrez eman beharko da izena. Xehetasun gehiago, datorren aldizkarian.


Senior nesken futbol taldea

2019-20 denboraldira begira senior nesken taldea osatu nahi du Usurbil F.T.-k. Futboleko jokatu nahi duzuen neskok adi. Xehetasun gehiago, aurrerago eskainiko ditu futbol klubak.

Amezketara igandean

Andatzakoekin

22 kilometroko ibilbidea osatuko dute igandeko txangoan, martxoaren 20a baino lehen izena eman zuten mendizaleek. Amezketara, meategiak, Pardarri, Ganbo, Ganbo Txiki, Arrubigaña zeharkatuko dituzte abiapuntura itzuli aurretik. 7:30etan abiatuko dira Kiroldetik autobusez. Egunpasa egingo dutenez, bazkaria norberak eraman beharko du. Informazio gehiagorako: andatza.com



kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrentzear. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitza 60m² eta garajeak 22m². 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trastelekua eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdik 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60.

Alokairuan

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu.

675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-letal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez

da garaje itxia. Prezioa negoziatuzko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriando 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rroburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administrari-dendari baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interes-atua bazaude, deitu 943 361 114 telefono zenbakira, edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguruetakoa kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak

emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiaren. info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel. 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketari, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentzietan pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

**Zorionak Ani eta Oxkar!**

Ondo-ondo pasa zuen egunean eta muxu potolo bat familia guztiaren partez!!!

**Zorionak Garazi!!**

Dagoeneko 11 urte bete dituzu!!! Muxu handi bat etxeko guztien partetik!!

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Ur-tarrietik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketetan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde

edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketetan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziarekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak

zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziarekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238

949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonese arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

4 gurgildun karro elektrikoak salgai. Scooter markakoa. Egokia elbarrituentzat. Tel. 664 609 596

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berrria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat galdu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Izaro

Futboleko kromoen bilduma galdu da eliza eta Txaramunto inguruan. 636393237

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gartetxoenentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! Telefono zenbakia: 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 21 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 22 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 23 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 24 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 25 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 26 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 27 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Martxoak 21 - Martxoak 31

Osteguna 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 29 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 30 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 31 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda martxo

22 ostirala

- **Origami tailerra.** 17:30-19:00 artean Sute-gi udal liburutegian.
- **Afalostean Blues kontzertuak.** 22:00ean Sute-gi auditorioan.

23 larunbata

- **Sagarrondotik Sagardora ikastaro prakti-koa.** 9:00-13:00 artean Potxoenean.
- **Txirikorda definitzeko prozesu parte hartzailea.** 10:30-12:30 Potxoenean.

24 igandea

- **Amezketari irteera.** 7:30etan Oiardo Kiroldegitik autobusez.
- **Laburbira, euskarazko film laburren emaldia.** Doan. 19:00etan hasita Sute-gin.

Euskarazko film laburren uzta berriena Sutegin

NOAUA! K.E.-ren eskutik, asteotan Euskal Herrian barrena dabilen Laburbira Sutegira dakar-gu igandean (martxoak 24) 19:00etan. 2016-18 urte artean ekoiztutako euskarazko film laburren doako emanaldian, "Begi ninien koreografia", "Shell phone", "Ama", "Zapatak", "June", "Ilunpean", "Hotzean garbitu", "Erroak" eta "Handiak eta txikiak" filmak ikusi ahalko ditugu kultur etxeko auditorioan.



"Ama", igandeko Laburbiran proiektatuko dugun euskarazko film laburretako bat.

Kolonbiari buruzko hitzaldia

"Kolonbia, Bake akordioaren ondorengo giza eskubideen urraketak" izeneko solasaldia antolatu du Tadamon elkargune internazionalistak, martxoaren 21erako 19:30etan Sutegin.

Hizlariokin: Maria Cecilia Lozano Camacho (METAko emakume desplazatuen elkarteko partaidea), Danilo Huertas Roldan (Fundacion Unidos por la igualdad y Paz Colombianako lehendakaria) eta Carlos Alfredo Nastacuas Taicus (AWÁ Herri Indigena elkarteko ume eta gazteen kontseilaria).

Sagarrondotik Sagardora ikastaroa

Sagastien neguko kimaketaz gaixotasun eta tratamenduez arituko da Aitor Etxeandia larunbatean (martxoak 23), 9:00etatik 13:00era, Potxoenean.

■ **Prezioa:** ikastaro osoa 96 euro, Alkartasuna Kooperatibako bazkideek doan. Saio solteetarako ere izena eman daiteke. Horretarako, Alkartasuna Kooperatibarekin harremanetan jarri.

■ **Izen ematea:** 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus

■ **Antolatzailea:** Alkartasuna Kooperatiba.

Datozenak

Jai Batzordearen bilera

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatuko ditugun Usurbilgo festak prestatzen segitzeko hurrengo bilera irekia martxoaren 25ean 18:00etan Potxoenean. Bildutako ekarpenak egitarauan kokatzen segiko dute.

Ixabel Agirresarobe, kontu kontari

Usurbilgo ipuin kontalaria kultur etxera itzuliko da hurrengo astean, martxoaren 27an. 18:00etan hasita, HH5eko ikasleentzako saioa eskainiko du udal liburutegian.

Pentsio duinen aldarria plazara

Usurbilgo Gure Pakeak, Santueneko Gure Elkartek eta Aginagako Arrate jubilatutako elkarrekin deituta, pentsio eta bizi duinen aldarria plazara aterako dute hilero moduan azken ostegunean, martxoaren 29an 19:00etan hasita Mikel Laboa plazan.

Gazteen batukada

Gaztelekuak antolatuta martxoaren 30ean, 17:00-19:00 artean Potxoenean, DBH1ekoentzat. Izen ematea aurrez Gaztelekuan edo 943 371 050 telefono zenbakian.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

MARTXOAK 24, IGANDEA

Laburbira

MARTXOAK 24
19:00 SUTEGIN



BEGI NINIÉN KOREOGRAFIA
Aurke Etxepare



SHELL PHONE
Miren Mujika



ZAPATAK
Itzi Muria



AMA
Jonu Martinez



JUNE
Arantza Iborra



HOTZEAN GARBITU
Maki Barrutandak eta Marta Tejada



ILUNPEAN
Jeser Maguregi eta Andrea Martinez



ERROAK
Ane Zabalburu



HANDIAK ETA TXIKIAK
Laida Ruiz



Joseba Sarrionandia
12 zinemagile
Unibertso bat

GURE OROITZAPENAK

Pelix Sarasolaren omenez

GURE OROITZAPENAK FILMA

Martxoak 31, igandea
SUTEGI AUDITORIOAN
18:30

Sarrerak: aurrez salgai 6 eurotan
NOAUA! Kultur Elkartean eta Lizardin.
Bazkideek 4 eurotan NOAUA!n bertan.



Doako Haurtzaindegi-zerbitzu gunea Urbilen.



Orain larunbat eguerdietan
ere, zure seme-alabek euren
atsedenaldiaz goza dezakete zuk lasai
asko bazkaltzen duzun bitartean.

ORDUTEGI BERRIA

Ostiralak 17:00 - 20:00h. Larunbatak 12:00 - 20:00h.
Igandeak eta irekitze-jaiegunak 16:00 - 20:00h.

Informazio gehiago www.urbil.es-en